




elkartu

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten  
Pertsonen Federazio Koordinatzailea  
Federación Coordinadora de Personas  
con Discapacidad Física de Gipuzkoa



# PERTSONA GISA ERREKONozIMENDU BERA LEGEAREN AURREAN

PERTSONA GISA  
ERREKONozIMENDU BERA  
LEGEAREN AURREAN

12. ARTIKULUAREN INGURUKO OHAR  
OROKORRA: PERTSONA GISA ONARPEN  
BERA LEGEAREN AURREAN



# AURKIBIDEA

4 or.

---

## 01

ZER DA  
KONBENTZIOA?

8 or.

---

## 02

ZER DIRA OHAR  
OROKORRAK?

10 or.

---

## 03

PERTSONA GISA  
ERREKONOZI-  
MENDU BERA  
LEGEAREN  
AURREAN  
KONBENTZIOAN  
ETA 1. OHAR  
OROKORREAN

18 or.

---

## 04

GAITASUN  
JURIDIKOA  
ERABILTZEKO  
LAGUNTZEN  
AIPAMEN  
BEREZIA

22 or.

---

## 05

ESTATUEN  
BETEBEHARRAK  
12. ARTIKULUA  
GAUZATZEKO

24 or.

---

## 06

ZEHARKAKOTA-  
SUNA BESTE  
ESKUBIDE  
BATZUEKIN

28 or.

---

## 07

12. ARTIKULUA  
ERABAT  
APLIKATUKO DELA  
ZIURTATZEKO  
HARTU BEHARREKO  
NEURRIAK

# 01

## ZER DA KONBENTZIOA?



Desgaitasunaduten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko konbentzioa 2006ko abenduaren 13an onartu zuten New Yorkeko Nazio Batuen Egoitzan eta 2008ko maiatzaren 3an jarri zuten indarrean, Estatuak sinatu eta berretsi ostean. Horrenbestez, nahitaez betetzekoa da.

Konbentzioak berekin dakartzan berritasunen artean, ondoko hauek nabarmentzen dira:

## 01

Desgaitasuna giza eskubideekin lotuta dago, izan ere, desgaitasuna duten pertsonak ez dira karitate edo asistentziatzko politiken «objektu»; aitzitik, giza eskubideen «subjektu» dira.

## 02

Desgaitasuna medikuntzaren ikuspuntutik ulertzeko modua gainditzeko du –osasun eta asistentzia arloko alderdiak lehenesten ditu horrek–, desgaitasunaren inguruan gizarte-eredu bat ezartzeko, non desgaitasuna urritasunak dituzten pertsonen arteko elkarrekintzaren emaitza baita, gizartean erabat eta eraginkortasunez, besteen baldintza berdinetan, parte har dezatela ekiditen duten jarrera eta ingurunearen ondoriozko hesiak gainditzeko.

## 03

Desgaitasuna duten pertsonentzat beren autonomia eta independentzia izateak duen garrantzia aitzortzen du, erabakiak hartzeko askatasuna barne.

## 04

Konbentzioak irizten dio desgaitasuna duten pertsonak aktiboki parte hartzeko aukera izan behar dutela politika eta programei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan, zuzenen eragiten dieten erabakiak barne.

---

*Konbentzioaren helburua da desgaitasuna duten pertsona guztiek beren giza eskubideak eta askatasuna erabat eta berdintasunez izango dutela sustatzea, babestea eta ziurtatzea, baita haien duintasunarekiko errespetua bultzatzea ere. (1. artikulua).*

HAUEK DIRA  
KONBENTZIOAK  
AITORTZEN  
DITUEN  
ESKUBIDE  
NAGUSIAK:

Berdintasuna eta  
diskriminaziorik eza.

Bizitzeko eskubidea.

Irisgarritasuna.

Justiziara iristea.

Legeak berdintasunez pertsona  
gisa aintzatestea.

Libertad y seguridad de  
la persona.

Torturaren eta bestelako tratu  
edo zigor krudel, anker edo  
umiliagarrien aurkako babesa.

Esplotazio, indarkeria  
eta abusuen aurkako  
babesa.

Pertsonaren askatasuna  
eta segurtasuna.

Joan-etorriak egiteko  
eta nazionalitaterako  
askatasuna.

Osotasun pertsonalaren  
babesa.

Modu independentean bizi eta  
komunitatearen kide izatearen  
eskubidea.

Mugikortasun pertsonala.

Hezkuntza.

Adierazpen- eta iritzi-  
askatasuna, eta informazioa  
eskuratzea.

Pribatutasunaren errespetua.

Osasuna.

Etxearen eta familiaren  
errespetua.


Gaikuntza eta  
birgaikuntza.

Bizi-maila egokia eta  
gizarte-babesa.

Lana eta enplegua.



Partaidetza bizitza  
politikoan eta publikoan.

Partaidetza bizitza kulturean,  
jolas jardueretan, aisian eta  
kirolean.



# 02

## ZER DIRA OHAR OROKORRAK?




Batzordeak desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz taxututako dokumentuak dira. Aipatu Batzordea Konbentzioaren aplikazioa gainbegiratzeko duen aditu independenteek osatutako organo bat da, Konbentziora aitortutako eskubideak argitzeko eta Estatuaren interpretaziorako gida modura baliagarri izan dadin.



---

Orain arte, Batzordeak Ohar  
Orokor hauek egin ditu:

---





- 1. ohar orokorra (2014) - 12. artikulua: Legeak berdintasunez pertsona gisa aintzatestea
- 2. ohar orokorra (2014) - 9. artikulua: Irisgarritasuna
- 3. ohar orokorra (2016), desgaitasuna duten emakume eta neskatoei buruzkoa
- 4. ohar orokorra (2016), heziketa inklusiborako eskubideari buruzkoa
- 5. ohar orokorra (2017), modu independentean bizi eta komunitatearen kide izatearen eskubidea
- 6. ohar orokorra (2018), berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa
- 7. ohar orokorra (2018), desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzeari buruzkoa, desgaitasuna duten mutiko eta neskatuena barne, horiek ordezkatzan dituzten erakundeen bidez, Konbentzioa aplikatuz eta jarraitu.
- 8. ohar orokorra (2022), desgaitasuna duten pertsonen lanerako eta enplegurako duten eskubideaz

# 03

## PERTSONA GISA ERREKONNOZIMENDU BERA

LEGEAREN AURREAN  
KONBENTZIOAN ETA 1.  
OHAR OROKORREAN





## 1/ AURREKARI HISTORIKOAK

Historikoki, desgaitasuna duten pertsoneri gaitasun juridikorako eskubidea ukatu zaie bizitzako alor ezberdinetan modu diskriminatuan. Horretarako, erabakiak hartzeko gaitasunik ez dutela oinarri duten erregimenak hartu dira aintzat.

Ondorioz, oinarrizko eskubide ugari ukatu zaizkie, besteak beste, botoa ematekoa, ezkontzekoa, familia eratzekoa, seme-alabak izatekoa, guraso bihurtzekoa, harreman intimoak izatekoa, mediku-tratamendua aukeratzekoa edota libre izatekoa.

Desgaitasuna duten pertsonenek aukera berdintasunean gaitasun juridikoa berreskuratuzeko, eskubide urraketa oro indargabetzea ezinbestekoa da.

## 2/ KONBENTZIOAREN 12. ARTIKULUA ETA OHAR OROKORREN 1GOA

Konbentzioaren 12. artikulua desgaitasuna duten pertsonak legez onartzeko berdintasuna aitortzen du.



**1** | *Desgaitasuna duten pertsonak nortasun juridikoa izateko eskubidea dute; horrela berresten dute Konbentzioa sinatu duten estatuek.*

**2** | *Desgaitasuna duten pertsonak nortasun juridikoa izateko eskubidea dute; horrela berresten dute Konbentzioa sinatu duten estatuek.*

**3** | *Konbentzioa sinatu duten estatuek beharrezko neurriak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa gauzatzeko behar dituzten laguntzak bermatzeko.*

4

*Konbentzioa sinatu duten estatuek ziurtatuko dute gaitasun juridikoa erabiltzeko neurri guztietan babes egoki eta eraginkorrak emango direla giza eskubideen arloko nazioarteko zuzenbidearekin bat datozen abusuak ekiditeko. Babes horiek bermatuko dute gaitasun juridikoa erabiltzeko neurriek pertsonaren eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatzea; interes gatazkarik edo eragin bidegaberik ez izatea; proportzionalak eta pertsonaren beharretara egokituak izatea; eta, ahalik eta eperik laburrenean aplikatzea eta agintari edo organo judizial eskudun, independente eta inpartzial batek aldizkako azterketak egitea. Babes-neurriak pertsonen eskubideei eta interesei eragiten dieten neurriaren arabera izango dira.*

5

*Artikulu honetan xedatutakoa galarazi gabe, Konbentzioa sinatu duten estatuek beharrezko neurri eraginkorrak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonak, aukera berdintasunean, jabeak izateko eta ondasunak oinordetzan hartzeko; norberak bere ekonomia kudeatzeko; edota, banku-maileguak, hipotekak eta bestelako finantza-kredituak aukera berdintasunean jasotzeko. Era berean, desgaitasuna duten pertsonak babestuko dituzte euren ondasunak modu arbitrarioan ez galtzeko.*

Modu berean, desgaitasuna duten pertsonen Batzordeko 1go Ohar Orokorrak Konbentzioak onartutako eskubidea interpretatzea laguntzen du kontzeptuak argituz eta garatuz; eta, Estatuei 12. artikulua aplikatzen laguntzen die, baita betebeharrak gauzatzeko ere.

## 3/ **PERTSONA GISA LEGEAREN AURREAN ERREKONozIMENDU BERA IZATEKO ESKUBIDEAREN INTERPRETAZIOA**

12. artikulua Desgaitasuna duten pertsonen eskubideen Konbentzioaren oinarri orokorrak kontuan hartuta interpretatu behar da.

- Duintasunaren errespetua, norbanakoaren autonomia, erabakiak hartzeko askatasuna barne, eta pertsonen independentzia.
- Diskriminazio eza.
- Parte-hartzea eta gizarteratzea erabatekoak eta eraginkorrak izatea.
- Aniztasunaren eta giza izaeraren izenean desberdintasuna errespetatzea eta desgaitasuna duten pertsonak onartzea.
- Aukera berdintasuna.
- Irisgarritasuna.
- Genero berdintasuna.
- Desgaitasuna duten haurrek eboluzionatzeko duten ahalmena errespetatzea, baita euren identitatea gordetzeko eskubidea ere.



## 4/ PERTSONA GISA LEGEAREN AURREAN ERREKONozIMENDU BERA IZATEKO ESKUBIDEAREN EDUKIA

Desgaitasuna duten pertsonak, gizaki diren aldetik, **nortasun juridikoa** dute; hori da, hain zuzen, pertsonaren gaitasun juridikoa onartzeko beharrezko baldintza.

Nortasun juridikoaren onarpenetik eratorritzen da **gaitasun juridikoa**, gainerakoen baldintza berdinetan eta bizitzaren esparru guztietan onartzen dena. Era berean, gaitasun juridikoak bi alderdi ditu:



**Eskubideen titularra izateko gaitasun juridikoa;** gaitasun honek ordenamendu juridikoak eskaintzen dituen eskubideak babesten ditu.

**Zuzenbidean jarduteko gaitasun juridikoa.** Horrenbestez, pertsona da bere eskubideak gauzatu eta eragin juridikoa duten jarduerak egiteko aktore juridikoa. Esate baterako, desgaitasuna duten pertsonak jabetzak izateko eta ondasunak oinordetzan hartzeko; norberak bere ekonomia kudeatzeko edo banku-maileguak, hipotekak eta bestelako finantza-kredituak aukera berdintasunean jasotzeko; edota, euren ondasunak modu arbitrarioan ez galtzeko.

Era berean, desgaitasuna duten pertsonari gaitasun juridikoa garatzeko duten eskubidea onartzen zaie. Hau da, desgaitasuna duten pertsonari ezin zaie gaitasun juridikoa ukatu, alderantziz, eragin juridikoa duten erabakiak har ditzaten laguntza eskaini behar zaie, horretarako sarbidea erraztuz.

## 5/ PARADIGMA ALDAKETA EDO TRAN- TSIZIOA: ERABAKIAK HIRUGARREN PERTSONA BATEN ESKU UZTETIK, ERABAKIAK HARTZEKO LAGUNTZA SISTEMARA

Tradizionalki, modu diskriminatuan, desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikorako eskubidea ukatu zaie esparru askotan. Halako erabakiak hirugarren pertsonen normalean ingurukoak, hartu izan dituzte. Orokorrean, ez da ulertu giza-eskubideetan oinarritzen den eredu batek paradigma aldaketa eskatzen duela eta erabakiak beste pertsonen esku utzi beharrean, erabakiak hartzen laguntzera pasa behar dela.

Erabakiak hartzeko ordezkapenean oinarritutako erregimenak era askotakoak izan daitezke; babes-osokoak, interdikzio judizialekoak eta babes-partzialekoak. Hala ere, erregimen guzti horiek ezaugarri komunak partekatzen dituzte:



Gaitasun juridikoaren galera, baita erabaki bakarra denean ere.



Erabakia hartzeko izendatzen dena izan liteke pertsona ego-kia ez izatea, eta gainera, izendapena desgaitasuna duen pertsonaren borondatearen aurkakoa izan liteke.



Erabakia hartzeko garaian, erabakia hartzen duen pertsonaren interesa kontuan hartzen da, eta desgaitasuna duen pertsonaren lehentasunak eta borondatea bigarren maila batean geratzen da.

---

Konbentzioa sinatu duten estatuak behartuta daude paradigma aldaketara; alegia, erabakiak hartzeko ordezkapenaren paradigmatik erabakiak hartzeko laguntzan oinarritutako paradigmara trantsizioa egitera. Neurri berriak hartu behar dira, alternatiba berriak bilatu. Baina erabakiak hartzeko laguntzan oinarritutako sistemak prestatzea eta, aldi berean, erabakiak hartzean ordezkapenean oinarritutako erregimenak mantentzea ez da nahikoa Konbentzioaren 12. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Erabakiak hartzeko laguntzan oinarritutako erregimenek forma asko har ditzakete, baina guztiek bete behar dituzte xedapen batzuk; hain zuzen, Konbentzioaren 12. artikulua betetzen dela ziurtatzen dituztenak. Besteak beste, hauek:






- a) Erabakiak hartzera bideratzen diren laguntzak **desgaitasuna duten pertsona guztien eskura egon behar dute**. Behar duen laguntza maila, batez ere handia denean, ez da oztopo.
- b) Gaitasun juridikoaren esparruan ematen diren laguntza mota guztiak (laguntza mota trinkoenak barne, **desgaitasuna duen pertsonaren borondatea eta lehentasunak errespetatu behar ditu**, bestelako irizpide guztiak bigarren mailakoak izango dira.
- c) **Pertsona batek komunikatzeko duen gaitasuna ez da oztopo** izan behar erabakiak hartzeko laguntza jasotzeko, nahiz eta komunikatzeko modua ez izan ohikoa eta pertsona gutxik ulertu.
- d) **Laguntza ofizialaren ardura duen pertsonari edo pertsonari erre-konozimendu juridiko eskuragarria eskaini behar zaie** eta Estatua behartuta dago laguntza sortzera, batez ere isolatuta dauden pertsonari eta lurralde ezberdinek bideratzen dituzten laguntzak jasotzeko aukerarik ez dutenen kasuan. Mekanismoak sortu behar dira laguntza ematen duen pertsonaren nortasuna egiaztatzeko edo laguntza ematen duen pertsonak hartzen dituen erabakiak inpugnatzeko, beti ere desgaitasuna duen pertsonaren borondatea eta lehentasunak errespetatzeko.
- f) Konbentzioa sinatu duten estatuen ardura da desgaitasuna duten pertsonak laguntza mota hauek **doan edo kopuru sinboliko baten truke** jasotzea. Finantza-baliabideak ezin dute oztopo izan desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa erabiltzeko.
- g) Erabakiak hartzeko laguntzak jasotzen dituzten desgaitasuna duten pertsonen kasuan, **laguntza mota horiek ezin dira justifikatu funtsezko beste eskubideak mugatzeko**, bereziki, botoa emateko, ezkontzeko (edo bestelako lotura zibila), familia eratzeko, haur bat izateko, guraso izateko, erlazio intimoetarako, mediko tratamendurako edota libre izateko.
- h) Desgaitasuna duen pertsonak eskubidea izango du **laguntzari uko egiteko edo laguntzarekin nahi duenean amaitzeko**, edo beste bat eskatzeko.
- i) Gaitasun juridikoarekin eta gaitasun juridikoa erabiltzeko laguntzarekin zerikusia duten prozesu guztietarako **babesak** ezarri behar dira. Babes mota hauen helburua da pertsonen borondatea eta lehentasunak errespetatzea.

# 04

## **GAITASUN JURIDIKOA ERABILTZEKO LAGUNTZEN AIPAMEN BEREZIA**



## NON AITORTZEN DA LAGUNTZAK IZATEKO ESUBIDEA?



Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 12.3. artikulua araber, *“Konbentzioa sinatu duten Estatuak beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte desgaitasuna duten pertsonen eskura jartzeko gaitasun juridikoa erabiltzeko behar dituzten laguntzak”*.

## ZER DIRA LAGUNTZAK?

Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa erabiltzeko baliabideak eta estrategiak dira, mota eta intentsitate ezberdinetakoak. Eskubideak bermatzen dituzte eta garapena, ongizatea eta inklusioa bermatzen dituzte baldintza berdinetan.



Laguntza  
motak:

- Bizimodu independentea garatu ahal izateko laguntza pertsonala.
- Erabakiak hartzeko laguntza pertsonala.
- Elkarrenganako laguntza.
- Promozioa.
- Komunikatzeko laguntza.
- Irisgarritasun unibertsala eta pertsona ororentzako diseinua.
- Komunikatzeko bide ezberdinak eta ez-ohikoak.

## **NOLAKOAK BEHAR DUTE IZAN LAGUNTZAK?**

- Desgaitasuna duten pertsonen eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatu behar dira; erabakitzeko eskumena beraiena da.
- Desgaitasuna duten pertsonen beharretara, eta desgaitasun gradura, egokitu behar dira.
- Babes-gune apropos eta eraginkorrak ezarri behar dira, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatuz. Era berean, mekanismoak ezarri behar dira laguntza ematen duen pertsona aldatzeko, bere egitekoa behar bezala betetzen ez bada edo desgaitasuna duen pertsonaren borondatearen aurka ari bada.
- Ez ditu interes-gatazkak ezta eragin bidegabeak onartuko.
- Desgaitasuna duten pertsonen konfiantza indartu eta ahalmenak sustatu behar ditu, etorkizunean garapen juridikoan esparruan laguntza-maila murrizteko edota modu independenteagoan aritzeko.
- Pertsonak nahi duen unean utzi, eten edo alda dezake laguntza.
- Doakoak edo ordainketa sinboliko bidezkoak izan behar dira, diru-sarrerak ez dute oztopo izan behar.
- Ezin da mugatu neurri gabeko edo bidegabeko karga dela aitzakia gisa erabiliz.
- Komunitatearen ikuspegitik eman behar da.

# 05

## ESTATUEN BETEBEHARRAK

### 12. ARTIKULUA GAUZATZEKO



Konbentzioa sinatu eta berretsi duten Estatu-kideek hurrengo betebeharrak hauek dituzte, desgaitasuna duten pertsonak legearen aurrean onartuak izateko eskubidea bermatzeko.

- 01** | Era guztietako desgaitasunak dituzten pertsonen eskubidea errespetatzea, babestea eta errealitate bihurtzea, legearen aurrean pertsona gisa duten aitormen bera eginez.
- 02** | Desgaitasuna duten pertsonen legearen aurrean pertsona gisa errekonozimendu bera izateko eskubidea galarazten dien jarduketarik ez egitea.
- 03** | Estatuz kanpoko agenteek eta partikularrek desgaitasuna duten pertsonen beren giza eskubideak (garapen juridikorako eskubidea barne) gauzatu eta horietaz gozatzeko duten gaitasuna oztopa ez dezaten neurriak hartzea.
- 04** | Laguntza jasotzen duten pertsonen trebakuntza ematea, erabaki dezaten noiz behar duten laguntza gutxiago edo noiz ez, gaitasun juridikoa erabiliz.
- 05** | Gaitasun juridikoa ukatzeari uztea, ukapen horren xedea edo ondorioa desgaitasun arrazoiengatik bereizketa egitea denean.
- 06** | Zaintza eta tutoretza arautzen duten legeak aztertzea eta neurriak hartzea, batez ere, ordezkapenetan oinarritutako erregimenak aldatu eta desgaitasuna duten pertsonen autonomia, borondatea eta lehentasunak errespetatuko dituzten beste ereduak indarrean jartzeko.
- 07** | 12. artikuluan onartutako eskubideak berehala betetzea, gaitasun juridikoa erabiliz laguntza jasotzeko eskubidea barne. Eraginkortasun progresiboa ez zaio gaitasun juridikoari aplikatzen.
- 08** | Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa baldintza berdinetan onartzeko eskubidea eta gaitasun juridikoa aintzat hartuko dituzten praktika hobek aztertu eta lantzea.

# 06

## **ZEHARKAKOTASUNA BESTE ESKUBIDE BATZUEKIN**





Garapen juridikoaren aitortza Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Konbentzioan aitortzen diren beste giza eskubide batzuekin dago lotuta:

● **Berdintasuna eta diskriminazio eza** (5. artikulua)

Gaitasun juridikoa ezin da modu diskriminatzailean ez ukatu ezta mugatu ere. Diskriminazio ezak berarekin dakar arrazoizko doikuntzak jasotzea garapen juridikoan aritzeko.

● **Emakumeak desgaitasunarekin** (6. artikulua)

Desgaitasuna duten emakumeen gaitasun juridikoa onartu behar da, gainontzeko emakumezkoek dituzten baldintza berdinetan.

● **Haurrak desgaitasunarekin** (7. artikulua)

Desgaitasuna duten haurren borondatea eta lehentasunak errespetatu behar dira, gainontzeko haurrek dituzten baldintza berdinetan.

● **Irisgarritasuna** (9. Artikulua)

Irisgarritasun-eskubideak bermatzen du jendearentzat irekita dauden instalazio, edo jendeari eskaintzen zaizkion zerbitzuak, irisgarriak behar dutela izan, edo oztopoak dektatu eta ezabatu behar direla. Oztopo horiek gaitasun juridikoaren onarpena barne hartzen duten neurrian, irisgarritasunerako eskubidea gaitasun juridikorako eskubidea-rekin gainjartzen da, eta, batzuetan, ahalmen hori gauzatzearen mende dago.

● **Justiziarako sarbidea** (13. artikulua)

Beren eskubideak eta betebeharrak gainerakoen baldintza berdinetan betetzeko eskatu ahal izateko, onartu egin behar dira desgaitasuna duten pertsonak, justizia-gorteetan eta auzitegietan gaitasun bera dutenak, eta ordezkariak juridikoa izateko aukera dutenak, gainerakoen baldintza berberetan. Gaitasun juridikoa

erabiltzeko laguntzak era askotakoak izan daitezke, hala nola komunikazio metodo desberdinak ezagutzea, egoera jakin batzuetan bideo bidezko testigantzak ahalbidetzea, prozesuko doikuntzak eta bestelako laguntza metodoak.

### ● **Askatasuna, segurtasuna eta adostasuna (14. eta 25. artikulua)**

Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa ukatzea eta erakundeetan beren borondatearen kontra askatasunik gabe uztea, haien baimenik gabe edo ordezkioak erabakiak hartzeko baimena emanda, ohiko arazoa da. Praktika horrek askatasuna kentzen du eta Konbentzioaren 12. eta 14. artikulua urratzen ditu. Era berean, ahalik eta osasun mailarik altuena izateko eskubidea (25. artikulua). Artikulu honek beregain hartzen du osasun-arreta eskubide libre eta informatua.

### ● **Osotasun pertsonala errespetatzea eta torturaren, indarkeriaren, esplotazioaren eta abusuaren aurkako babesa (15., 16. eta 17. artikulua)**

Estatu-kideek laguntza eman behar dute tratamendu psikiatrikoari eta bestelako tratamendu medikoei buruzko erabakiak hartzeko, eta nahitaezko tratamendua ahalbidetzen edo gauzatzen duten politikak eta lege-xedapenak ezabatu behar dituzte; pertsona baten osotasun fisiko edo mentalari buruzko erabakiak pertsona horren baimen aske eta informatuarekin bakarrik har daitezkeela bermatu behar du.

### ● **Herritartasuna (18. artikulua)**

Desgaitasuna duten pertsonak, beren nortasun juridikoaren zati guztietan, eskubidea dute izen bat izateko eta beren jaiotza inskribatzeko.

### ● **Bizimodu Independentea (19. artikulua)**

Desgaitasuna duten pertsonak aukera izan behar dute komunitatean modu independentean bizitzeko eta beren eguneroko bizitzaren kontrola izateko, gainerako baldintza berberetan.

Gaitasun juridikoa erabiltzeko laguntza komunitatean oinarritutako ikuspegia erabiliz eman behar da. Estatuak onartu behar dute komunitateak baliabide bat eta aliatu bat direla prozesuan, gaitasun juridikoa erabiltzeko beharrezkoak diren laguntza-motak ulertzeko, laguntza-aukerari buruzko sentsibilizazioa barne. Estatuak onartu behar dute desgaitasuna duten pertsonen sare sozialak eta babes

komunitarioak (besteak beste, lagunartea, familia eta eskola) funtsezkoak direla erabakiak hartzen laguntzeko. Erabakia bat dator Konbentzioak desgaitasuna duten pertsona guztiak komunitatearen parte izateko eta parte hartzeko ematen dion garrantziarekin.

Desinstituzionalizatu egin behar da, eta desgaitasuna duten pertsona guztiak gaitasun juridikoa berreskuratu behar dute, baita non eta norekin bizi aukeratu ere.

### ● **Pribatutasuna (22. artikulua)**

Oinarrian, erabakiak hirugarren pertsonen esku uztea bultzatzen duten erregimenek, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak urra ditzakete; izan ere, erabakiak hartzeko ordezkoei informazio pertsonala, eta bestelakoa, eskuratzeko aukera izaten dute. Erabakiak hartzeko laguntza-sistemak ezartzean, Konbentzioa sinatu duten estatuak bermatu behar dute gaitasun juridikoa erabiltzen laguntzen dutenek erabat errespetatzen dutela desgaitasuna duten pertsonen pribatutasun-eskubidea.

### ● **Parte-hartze politikoa (29. artikulua)**

Pertsona batek erabakiak hartzeko duen gaitasunak ezin du justifikatu desgaitasuna duten pertsonak beren eskubide politikoak erabiltzetik salbuestea; besteak beste, boto-eskubidea, hauteskundeetan hautagai gisa aurkezteko eskubidea edota epai-mahai bateko kide izateko eskubidea.

# 07

## 12. ARTIKULUA ERABAT APLIKATUKO DELA ZIURTATZEKO HARTU BEHARREKO NEURRIAK



Desgaitasuna duten  
Pertsonen Eskubideen  
Konbentzioko 12. artikulua  
aplikatuko dela Ziurtatzeko,  
Estatu-kideek jarraian  
zehazten diren neurriak  
hartu behar dituzte:

- a) **Desgaitasuna duten pertsonak legez onartzea, nortasun juridikoa eta gaitasun juridikoa izanik bizitzaren alderdi guztietan,** gainerakoen baldintza berberetan. Horrek eskatzen du erabakiak hirugarren pertsonen esku uztea posible egiten duten erregimenak eta mekanismoak albo batera uztea; izan ere, gaitasun juridikoa ukatu egiten zaie euren eskubideak urratuz.
  
- b) **Desgaitasuna duten pertsoneri laguntza aukera zabala ezarri, aitortu eta ematea,** beren gaitasun juridikoa erabiliz. Laguntza horietarako babesak desgaitasuna duten pertsonen eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatzean oinarritu behar dira.
  
- c) **Kontsulta lotesleak egitea eta desgaitasuna duten pertsonekin aktiboki lan egitea, haiek ordezkatzan dituzten erakundeen bidez,** legeria eta politikak prestatzen eta aplikatzean, baita erabakiak hartzeko bestelako prozesuetan ere.



Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten  
Pertsonen Federazio Koordinatzailea  
Federación Coordinadora de Personas  
con Discapacidad Física de Gipuzkoa

